



UNIKUDE

UPV/EHUko ikastegien kudeaketa-softwarea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



ZER DA UNIKUDE?

Unibertsitateko ikastegiak kudeatzen laguntzeko tresna informatiko bat da, azken urteetan UPV/EHUko hainbat ikastegitan egin den prozesukako kudeaketaren esperientzian oinarritzen dena.

Ikastegiak eta tituluak eraginkortasunez eta kalitatez kudeatzeko online aplikatibo bat da, estatuko bakarra.





Non dago esperientzia hau?

- UPV/EHUko web orrian, Kalitate Katedrari dagokion atalean; hain zuzen, honako dokumentu honetan:


[Unibertsitateko ikastegi bat zuzentzeko gida, prozesukako kudeaketan oinarritua](#)

http://www.kalitate-katedra.ehu.es/p211-content/es/contenidos/informacion/biblioteca_catedra_calidad/es_bibliokk/adjuntos/GuiaParalaDireccion_GestionProcesos.pdf




unikude*





Zertarako sortu zen?

- Unibertsitateko ikastegietako kalitatea bermatzeko sistemen dokumentu-kudeaketa errazteko, eta graduko eta graduondoko titulu berrien JARRAIPENARI eta etorkizuneko EGI AZTATZEARI erantzuteko.




unikude*





Zein da UNIKUDEren helburua?

Ikastegi bakoitzak bere Kalitatearen Barne Bermerako Sistema (**KBBS**) definitzea, titulu guztien jarraipena egiteko oinarritzko elementua, alegia; horretarako, prozesu-mapa definitzen lagunduko zaie ikastegiei, baita azpiprozesuak eta prozedurak zehazten ere.





Zer ezaugarri ditu software honek?

1. Dokumentuak kudeatzen ditu, eta ikastegiko prozesuen kudeaketa-sistema guztia eguneratzen du.
2. Prozesu eta prozedura bakoitzari lotutako adierazleak definitu ondoren izandako jarduera neurtzen du.
3. Hobekuntza-jarduera egokiak zehazten ditu, titulu berriek egiaztapen-txostenetan jasotako helburuak lor ditzaten.
4. Ikastegiko kudeaketaz arduratzen diren erabiltzaileak zehazten laguntzen du, bai pertsona bakarreko organoak (dekanoa, dekanordeak, idazkariak) bai taldeko organoak (ikastegiko batzordeak).
5. Ikastegi bakoitzeko Kalitatearen Barne Bermerako Sistema berrikusteko erabil daiteke, baita hainbat txosten egiteko ere, hala tituluaren jarraipenari buruzkoak nola ikastegia kudeatzeari buruzkoak.





Nola berrikusten da sistema?

Kudeaketa-sistema osoa lau mailatan berrikusten da:

- Prozeduren berrikuspena
- Prozesuen berrikuspena
- Tituluen berrikuspena
- Ikastegiaren berrikuspena



unikude*





Zein datu sartu behar dira UNIKUDEn?

- Ikastegia kudeatzeaz arduratzen diren hainbat erabiltzaileren zehaztapena, bai pertsona bakarreko organoenak (dekanoa, dekanordea, idazkaria...) bai taldeko organoenak (ikastegiko batzordeak).
- Prozesu-maparen zehaztapena eta horiekin lotutako prozesu eta azpiprozesuen eta prozedura guztien definizioa.
- Prozedurekin eta prozesuekin lotutako adierazle guztien definizioa.



Nork erabiliko du?

2009ko deialdian AUDIT ziurtagiria eskuratu duten Ikastegiek


Arabako campusa: • Farmazia Fakultatea • Letren Fakultatea • Gasteizko Ingeniaritza Unibertsitate Eskola

Bizkaiko campusa: • Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola • Zientzia eta Teknologia Fakultatea • Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoa

Gipuzkoako campusa: • Psikologia Fakultatea • Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa • Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola .

- Horiez gain, bigarren fasean, AUDIT* 2010 deialdira aurkeztuko diren 9-11 ikastegik.

***AUDIT:** ANECAk (Kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko agentzia nazionala) unibertsitateko ikastegientzat egindako programa da, kalitatearen barne-bermerako sistemak ezartzen laguntzeko.



unikude*



eman la zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea